

URNIETA / Ipuin irakurketak 'Liburutegiko xaguak' ekimenaren barruan

Gaur, bigarren aldiz, Urnietako liburutegian ipuin irakurketa antolatu da 'Liburutegiko xaguak' ekimenaren barruan 4 eta 8 urte bitarteko haurrentzat.

Ekintza honen helburua umeak irakurketa aktibora gerturatzea izango litzateke eta horregatik Urnietako liburutegian hileroko (astearteetan) burutuko da begirale espezializatu batekin.

Beraz, haurrak gaur izango dute aukera historio dibertigarriak irakurtzeko eta hurrengo hitzordua martxoaren 29an izango da, eta apirilak 5 eta 12, arratsaldeko 17:00etan.

Bestalde, liburutegirik argi utzi nahi dute, "saioa hasi eta gero ezingo da gelara sartu".

Ipuin Lapikoa

Otsailetik aurrera, abian da Ipuin Lapikoa ekimena, Urnietako Udaleko Kultura eta Gazteria sailek eta Udal Liburutegiak antolatuta. Egitasmo honek, 'Liburutegiko Xaguak' ekimenaz bestalde, haurrengan irakurzaletasuna bultzatzea du xede nagusia, ipuin kontalariak gonbidatuz. Hilean behin, bigarren asteazkenean, ipuin kontalari bat gerturatukoda herrira ipuin lapikoari eragiteko prest. Saio bakoi-tzak gai bat izango du ardatz eta euskaraz burutuko dira. Hilabete honetako saioan, emakumearen inguruan jardun zen kontalaria, Emakumeen Nazioarteko Eguna zela eta eta horretarako 'Filomena Musugorri Errege eta beste ipuin batzuk' izenburupean, gizonez-koen eta emakumezkoen arteko berdintasuna izan zen hizpide.